

www.noaia.com

Noaia!!!



Datorren asteartean,
Pilota Elkartearen erakustaldia



Jon Astiazaran

Munduko Wakeboard Txapelketan arituko da

KABITAZIOA

Zure gorputza kirurgiarik gabe modelatzen duen teknika

Bai **GIZON** eta **EMAKUMEETAN** emaitzak:

- Liposukzio efektua
- Zelulitisaren desagertzea
- Koipe lokalizatua gutxitu egiten da
- Gorputzaren silueta modelatzen du
- Azala leundu egiten du
- Tejidoak berrindartzen ditu



Nagusia 8, USURBIL 943 36 36 41 (egun guztia irekia)

Kalitatezko produktuekin estilismoa eta estetika lantzen ditugu



**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**

☎ **943 36 46 00**

www.lhusurbil.com

Erdi eta goi mailako zikloak A eta D Ereduak

Administratiboa



Elektrizitate-elektronika



Fabrikazio mekanikoa



Ura eta energia
Produktzio zerbitzu eta manten.



Honako honen bila bazabiltza: Kalitatezko irakaskuntza, lanpostu bat topatzeko erraztasuna, enpresa praktikak, atzerrian praktikak, ekipamendurik berriena.

MATRIKULA ZABALIK uztailaren 4tik 8ra



Albiste iruditan!

Egoitza berria da Alkartasuna kooperatiba

Materiala eta beharrezko lanabes guztiak lekuz aldatuta, astearteaz geroztik zabalik dago Alkartasuna Nekazal Kooperatibako egoitza berria. Atallun du kokagunea Alkartasunak. Bertara ailegatzeko ez da galbiderik; Kaxkotik Ingemar pareraino jaitsi eta han Santuenea alderako bidea hartu ordez, pabilioi berrietara jo behar da. Detaile moduan, lehen egunotan, erosketaren bat egiten duten bezeroei oparitxo ematen ari dira. Aipatu moduan, ekainaren 21ean ireki zituen atea Alkartasunako egoitza berriak, baina aurrerago inaugurazio ekitaldi batekin irekiera ospatzeko asmotan dira. Uztailaren 16rako iragarri dute inaugurazio ekitaldia.



INAUGURAZIDA UZTAILAREN 16AN IZANGO DA.

Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	DYA	943 464 622
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Gurutze Gorria	943 272 222
Udaltzaingoa	943 361 112	Etumeta AEK Euskaltegia	943 372 001	Emergentziak	112
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Kalezar Egunekeo Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Gure Elkartea Zahar Egoitza	943 371 751	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Bake Epaitegia	943 372 336	Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Udarregi Ikastola	943 361 216	Taxia (Angel)	607 928 770	Banco Popular Español	943 370 411
Haur Eskola	943 374 061	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466	BBVA	943 377 155
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Eusko Tren	943 470 976	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Hastapen tailerrak	943 360 465	Anbulategia	943 362 013	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
KZgunea	943 570 999	Oa botika	943 376 076	Telefonica	1004
Oiardo Kirolegia	943 372 498	Iturralde botika	943 363 395	Euskaltel	900 840 840

Noaua!

NOUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil 943 36 03 21 / elkartea@noaua.com / www.noaua.com

Jendurako ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua. Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda. Idazkaria: Alaitz Aizpurua. Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com.

Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.com: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua. Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbietta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Irati Portu, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Maider Makazaga, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai, Belmonte Auzo Elkartea eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale. Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818. Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



Euskal presoak



Euskal Herrira!





IDOIA TORREGARAI

Txerri saltariarena

Beti gertatu dira gauza xebreak gurean. Edo beharbada (ziurrenik), gure familia da xebrera dena. Kontua da zazpi urte izango nituela. Orduan Gaztañako "hazienda" dozena bat oilok, sei konejuk, ehizera eramaten ez zituzten bi pointerrek eta bi txerrik osatzen zuten.

Etxeko txikiena eta neska izanda, abereen zainketa gehienaz "libratu" egiten nintzen, baina banuen egiteko garrantzitsu bat: txerriei azpik atera bitartean, ukulluko lurra ez altxatzea bijilatzearena, hain zuzen ere. Muturra lurrean sartu orduko "dinbidanba" ematen nien biei buruan makil eder batekin, eta korrika ateratzen ziren beste puntara berdina egitera. Eta ni atzetik. Zein harro egiten nuen lan hura!

Urtero bi txerri hazten genituen. Nik "kariñua" hartzen nien, baina inoiz ez zidaten utzi izenik jartzten (eta eskerrak, zeren gero gustura asko jaten nituen txorixo eta odolkiak. Artean, ez nekien nondik zetozen). Kontua da zazpi urte nituen hartan, ukullura jeisten ginen bakoitzean, txerrietako bat txerriketik kanpora topatzen genuela. Izugarritzko

misterioa zen guretzat, izan ere, txerrikiko atea itxita zegoen eta beste txerria hantxe egoten zen, txintxo-txintxo. Eguna joan eta eguna etorri berdina gertatzen zen, txerria kanpoan aurkitzen genuela. Eta gu zur eta lur: txerri eskapista ote daukagu ba?

Azkenean, deskubritu genuen zergatia: txerrikiko pareta salto egiten zuen!! Txerri tunanteak ia karrerillarik gabe metro t'erdí pasatzen zuen garbi!! Ez genuen sinestuko gure begiekin ikusi ez bagenu. Beraz, tabloi bat gehiago jarri genion txerrikokiari. Baina hori ere salto egin zuen! Azkenean, gutxienez 2 metro t'erdiko zailtasuna jarri genion, eta hura salto egiten bazuen hurrengo olinpiadetara apuntatuko genuela erabaki genuen, Sotomayorri konpetentzia egitera, edo gutxienez National Geographicera deitu, dokumental bat egiteko. Baina ez, bere marka azken tabloi horretan geratu zen, eta txerri haren "destinua" beste guztienaren berdina izan zen (baserritarrak beti hain praktikoak).

Guztietan bereziena izan zen txerri hura niretzat. Txerri gobernatzaille ofizial-ohi moduan, izan daitezela lerro hauek txerri saltariaren gorazarre.

Maialen Unanue - Luis Aranalde - Ugaitz Agirre - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Joxe Piñas - Imanol Ubeda - Unai Agirre - **Idoia Torregarai**

Zuzendaritza talde berria osatzeko

bilera deitu du Usurbil Kirol Elkarteak, Sutegin

Elkarateak burutu zuen azken batzarrean hala erabakita, larunbat honetarako, ekainaren 25erako bilera berria deitu du Usurbil Kirol Elkarteak Sutegiko auditorioan. Goizeko 11:00etan hasiko den ekitaldian, eskubaloí taldeak biltzen dituen elkarteak gai nagusi bat jorratuko du;

zuzendaritza taldea osatzeko hitzordua izango da hilaren 25ekoa. "Zuzendaritza berria osatzeko eta datozen urteetan kirol elkarteak zuzenduko duten lan taldea osatzeko bilera izango da Sutegiko auditorioan", ohartarazi dute Usurbil KE-tik.

Hitzordura gerturatzeko gonbita

luzatzen dute. "Deia luzatu nahi diegu gaur egun elkarteak jokatzeko duten jokalarien gurasoei. Beraien seme alabek eskubaloian jokatzeko jarraitzeko beharrezkoa da beraien inplikazioa", adierazi dute. Bilera, aipatu moduan, larunbat goizeko 11:00etan Sutegiko auditorioan.



Javier Orbegozo
·ITURGINTZA
·GASA ·BEROKUNTZA
659 602 789
Erreka-txiki 13, 3.esk USURBIL 943 37 29 37



JON ELORZA
IGELTSEKITA
OROKORRA
Obra eta erreformak
661 804 688
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

Moratoria, ardura eta elkarlan eskaera hautatu berriei, Gipuzkoa Zero Zaborretik

Errauste plantaren egitasmoari moratoria aplikatzea eta Ordezkarri politiko hautatu berriei arduraz jokatzeko eskatzen die Gipuzkoa Zero Zaborrek (GZZ), maiatzaren 22ko udal eta foru hauteskundearen ostean sortu den egoera berriaren inguruan egin duten hausnarketaren baitan. Era berean, elkarlanerako prest agertzen dira GZZ-koak. "Arduraz jokatzeko eskatzen diegu gure eta gure ondorengoen etorkizuna bere eskuetan izango duten arduradun politikoei. Moratoria eskaera onartu eta zaborraren kultura gainditzeko bidean, bidelagun izateko eskua luzatzen diegu era berean", adierazi dute ohar bidez.



IAZ EGIN ZEN GIPUZKOA ZERO ZABOR TALDEAREN AURKEZPENA.

Aukera bat eskatzen dute, herrialdean zero zabor programa bat jarri ahal izateko, "hondakinei, herritarren osasuna kaltetuko ez duen irtenbide bat emateko". Gaineratzen dutenez, "murriztu, berrerabili eta birziklatzeari benetan ekiteko".

Hartutako erabakiak birplanteatzeko garaia

Aipatu programa horri begira proposamen sorta egiten dute GZZ-tik: "Herritarren osasuna lehenetsiz, aipatutako helburuak lortzeko dauden baliabide eta tekniken azterketa eta eztabaida irekia sustatu behar da Gipuzkoan. Programa batean epe zehatzetarako helburu zehatzak jarri

behar dira Zero Zabor azken helburura iristeko bidean. Era berean herritarren parte hartzea bultzatu behar da helburuak betetzeko ekintzak zehazterakoan".

GIPUZKOA ZERO ZABOR

"Lehenbailehen
errauste planta eraikitzeko
moratoria onartzeko
exijitzen dugu"

Herritarren ongizatea helburu
Horren aurrean, onartezintzat jotzen dute herritarren osasuna kalte

dezaketek jarduerak bultzatzea, GZZtik gogorarazten dutenez, "beraien zeregina herritarren ongizatea lortzea izan behar duenean. Horregatik lehenbailehen errauste planta eraikitzeko moratoria onartzeko exijitzen dugu".

Modu berean, "desoreka instituzionala baliatuz" batzuk erraustearen bidea jorratu izana salatzen dute eta ondorioztatzen dutenez, hauteskundeekin egoera hori gainditu den heinean, GZZkoen iritziz, "bazterketan oinarritutako ordezkariak egon den epealdian hartutako hainbat erabaki garrantzitsu bezain gatazkatsu birplanteatzeko garaia izan beharko luke".

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Okindegia - Gozotegia

LABE-GOXO

ALIPROX

Kale Nagusia 10
☎ 943 361 182
USURBIL

TAXI 24h
Jose Etxabe USURBIL

677 37 34 66
943 36 21 78

Andoni Errazkin

Xukin
igeltseritza orokorra

Barne eta kanpoko lanak

USURBIL
☎ 663 08 76 71 • 943 24 34 65

KALEZAR

MADDI GALBETE

Ekainaren 23a



Txikitan beti esaten genion Ioni ekainaren 23ko suak egun horretan bera jaio zelako egiten zirela. Pentsa, aurten 17 beteko ditu eta oraindik txorakeri berdina esaten jarraitzen dut eguna iristen hasten denean. Eta egia esan neurri batean uste dut horren barneraturik dudala, batzuetan sinistu egiten dudala berarengatik egiten dela San Juanetako festa.

Usurbilera bizitzera etorri ginenera arte ordea, uste dut ez nituela horrenbeste bizitzen San Juanak. Hona etorri gineneko lehenengo 23 gaua berriz, ondo gogora dezaket.

Hilabeteak lehenagotik jada ikusi genuen nola zihuan pilatzen erregaien multzoa, eta eguna iritsi zenean bostok aho bete hortz geratu ginen Kalezarko sua ikusi genuenean. Sekula lehenago ez genuen horrelako surik inon ikusi eta ez dut uste sekula berriz horrelako zerbait ikusiko dudarik.

Astebete lehenagotik jada urduri egoten banintzen ni, ez dut pentsatu ere egin nahi nola egoten zen Ion!! Akaso txikia nintzelako gogoratzen dut horren handi, baina



kontua da urteek aurrera egin ahala pixkanaka txikitzen joan dela sutea eta jada ez dela garai batean izan zena. Kontuak kontu, aurten ere iritsi zaizkigu San Juanak, eta handiago edo txikiago, modu batean edo bestean, denok ospatuko ditugu.

Nik, hala ere, Ionengatik egiten direla suak pentsatzen jarraituko dut, eta arrazoi horrek surik txikienak ere handitzen ditu.

KALEBERRI

ANA URDANGARIN

Urtaro aldaketa



Sartu gara udan jada eta eguraldi onarekin batera hemen dira auzo, herri eta bazter guztietako jaiak. Ate joka ditugu, nola ez, gure herri maiteko Santixabelak ere, atzera kontua hasi da eta egun gutxi barru hor izango gara giro paregabean murgildurik.

Pasa den aste bukaeran hasi ditugu San Juan jaien ospakizunak eta jende ugari ibili da Kalezarko festetan murgildua.

Uda guztian zehar bada non zer ikusi eta gozatua, prestatzen joan beharko gara beraz. Hala ere, gure herrian festaz aparteko hainbat ekitaldi izaten ditugu urtean zehar eta errodajea ederki egina daukagu bai.

Aurreko ekainaren 11ko gazte auziperatuen alde "Gazte1+ez!" plataformak antolaturiko kontzertu festan esate baterako, sekulako giroa izan genuen herrian eta milaka gazteren topaketa leku izan zen gure herria. Antolaketa bikaina izan zela zalantzarik ez zen geratu, dena primeran irten baitzen.

Gozatu ba ahal duenak ahal duenean eta ondo segi!!!! Gora Santixabelak!!

URDAIAGA

NEREA AIZPURUA

Uda eta festak, ate joka

Asteartean ekainaren 21ean, batzuek hain desiratu duten udaberriak auzari utzi zion tokia. Eguna gauak baino ordu gehiago izaten ditu egun horretan eta antzinatik, erritual eta ohitura ugarirekin ospatzen da "egunaren garaipena". Eguraldi ona eta gaztetxoenen oporraldiekin batera lehen festak ere iritsi zaizkigu herrira: San Joanak. San Joan sua, bezperan, ekainaren 23an. Euskal Herriko baserri eta hiri guztietan suak pizten dira, udarako solstizioa ospatzeko eta gure auzoan ere badira tradizio hori mantentzen dutenak ere.

Polita eta magiaz betetako gaua izan ohi da eta sarritan aintzinako garaietara "hegan" egiteko beta eman ohi du. Suaren gainetik salto egin, guretzat eta gure ingurukoentzat desioak eskatu...

Eta garai hauetan ez dago aitzakiarik! Batzuek laster hasiko dira mundu berriak ezagutzeko aukera emango dioten maletak prestatzen eta hemen geratzen denak ere ez du aspertzeko aukerarik. San Joanetako festak, Santixabelak eta Zubietako festak pasa ostean etorriko zaizkigu San Estebanak. Aurten ere ez da festarik faltako gurean. Beraz badakizue, animatu!



AGINAGA

LONTXO ZUBIRIA

Xomorro, 20 urte espetxean



20 urte pasa diren arren, herriak txikia izaten jarraitzen dik, Xomorro. Lehen bertan bizi ginenok, denok, elkar ezagutzen genian, bakoitza ze baserritakoa edo etxetakoa zen ere bagenekian. Orain, garaiak aldatzen ari dituk, etxeetan, aurrerapenak omen dizkiagu baina gaur egun, auzoan, zein bizi den ere batzutan etzakiagu.

Lehen gure zaharrek aurpegira begiratu orduko laster esaten zigutean "hi halakoren semea haiz edo halako kastakoa haiz" eta asmatu egiten zitean, alegia, denok denon berri izaten genian. Hirekin ere antzeko zerbait gertatzen duk, gazteentzat behintzat, argazkitik edo hire bertso-paperegatik haiz ezaguna.

Hain gazteak ez garenok hire izaera eta herriarekiko konpromisoarengatik ezagutzen haugu, eta hire parrandegatik ere bai. Elkarrekin egin izan ditugunengatik, alegia. Baina sufritzen diagu ikusirik badela garai bertako gazteak ere benetan hi nolakoa haizen ezagutu dezaten.

Madrilgo epaileek ezarritako kondena aspalditxo bete dauk, eta oraingo egoeran edukitzeak mendekutik



gehiago dik justiziatik baino. Madrilen gauzak mantso joaten dituk, eta okerreko lekutik askotan. Zorionez, gauzak gure Euskal Herri honetan beste bide batetik abiatu dituk, esperantzarako bidetik, batez ere ezker abertzaleko kide sentitzen garenon artean. Urte asko zamakiagu aurrez aurre ikusi gabe, ezin ezkutatu desberdin pentsatzeak ere zauriak utzi izan dizkigula, baina maitasunak hortxe irauten dik lehenengo egunean bezalaxe. Asko gaituk Aginagan hi noiz ikusiko zain gaude-nok. San Praixkuetan bada, hobe.

ATXEGALDE

AINARA ARNAIZ

Heldu da, festa giroa



Udan sartu gara aste honetan. Udaberriaren amaiera, San Juanak, egun luze eta beroak, eguzkia non nahi eta hondartzara eskurtsioak. Festak, parrandak, gauean etxean agur esan eta goizean goiz egunon, ogia eta egunkaria to, ohera noa, bihar arte!! Batzuentzat udarako errutina paregabea izan ohi da bi hilabete hauetan zehar. Besterik egiteko pentsamendurik izango duenik ere egongo da noski, mendira egunpasa joateko irrikitan edo herrialde ezezagunak esploratzera joango direnak. Etxean gelditzeko aukera egiten duenak, badaki hala ere ondo pasako duela.

Inguruko herrietan festak hastear daude, hasi ez badira, gurean Kalezarkoek estreinatu zuten pasa den asteburuan udako "festa-maratoia" eta ederki gainera!!! Hemendik aurrera nora joan dudaren aurrean zer eginik ez dugu faltako, bata bestearen atzetik etorriko baitira jaiak. Poltsikoa ondo bete diruz, lagunekin plana egin eta gauez zein egunez goazen ondo pasatzera! Herriko festak ere hortxe dauzkagu zain. Programa bete-betea dator aurtengoan ere eta beraz, ondo pasa!!

ZUBIETA

PELLO ARANBURU

Herri batzarra

Haragi eta txorixo egosia. Ardo eta sagardoa. Hamaiketako agindu zuten. Baita eman ere. Hori bai, horren aurretik Zubietako Herri Batzarra berria osatu behar zen. Eta entzun batzarkide berriei, eta Usurbilgo eta Donostiako alkateei. Zintzo portatu ziren: ondo eta labur aritu ziren, ordu erdiren ondoren basoa eskuan genuen.

Bilera atsegina izan zen. Gauza orokorrak aipatu ziren. Eta asmo onak. Ez da gutxi kezkatzen gaituzten zenbait arazoan aurrean aukera berriak zabaltzea.

Bestalde, jendearen laguntza eskatu zuten. Zerbait lortzekotan denon artean lortuko dela. Praka bete lan Alazne eta batzarrekoentzat. Eta guretzat, zerbait lortuko bada.

Bilera bukatu zela ematen zuen, baina ez. Hitz egin behar ez zuenak hitza hartu zuen: Bai, egun handia da Zubietarentzat Usurbilgo eta Donostiako alkateak etorri diren eguna; horretan ez dago dudarik. Baina handiagoa izango da Usurbilgo eta Donostiako alkateak etorriko ez diren eguna, etorri behar izango ez duten eguna, Zubietako herria izateaz aparte, udalerrira ere izango delako. Orduan bai, hasiera eman genion hagin festari.



Amaya Goyaran, PSE-EEko zinegotzi ohia

“Usurbilen alde lanean jarraituko dut”

Hasi da legealdi berria. Baina 12 urteren ondoren, Amaya Goyaran sozialista ez da Udaletxean izango. Elkarrizketa honen bidez, eskerrak eman nahi dizkie herritarrei eta udal langileei. Kargua utzi badu ere, “usurbildar guztien esanetara” jarraituko duela adierazi digu.

NOAUA! Arraroa egingo zaizu udal txera etorri behar ez izatea, ezta?

Amaya Goyaran. Oso arraroa egingo litzaidake, udaletik joan eta desagertuko banintz, baina Usurbilen eta Usurbilekin jarraituko dut, 12 urte hauetan zehar herri honekin nuen lotura handituz joan da eta herri honetako parte naizela sentitzen dut. Beraz, hona etortzen jarraituko dut, nagusiki bi arrazoi hauengatik: batetik, herrian lagun onak ditudalako eta baita udal langileen artean ere eta, bestetik, usurbildar guztien esanetara jarraituko dut beharrezkoa duten guztietan eta ni lagungarri izan naitkeen kontuetan.

N. Zergatik ez zinen berriro aurkeztu?

A. G. Nagusiki, osasun arazoengatik. PSE-EE alderdian zerrendak prestatzen hasi zirenean, ni oso une delikatuan nengoan, eta nire osasuna edo udaletxea planteatu behar izan nuen. Gainera, gurusoak eta amaginarreba nire zaintzapean daude. Eta nahiz eta orain zinegotzi moduan jarraitzen duen batek txantxan hartu bazuen nire osasun arazoa, gaur egun esan dezaket bi tumore izan ditudala eta Onkologikoko medikuen lan onari esker dagoeneko gainditu ditudala. Oso prozesu luzea eta gogorra izan da, ahalik eta modu egokienean eramaten saiatu naiz, nire ingurukoek sumatu ez zezaten eta nire karguko betebeharreran eragin ez zezan.

N. Batzuk uste dute atez atekoaren inguruan hartu zenuen jarrerak eragin zuela. Alderdiak eraginik izan al du erabaki horretan?

A. G. Hondakinen gaikako bilketari buruz, beti esan dudana esango dut orain ere. Sistema berria probatu behar zen eta horrela egin zen, eta ministroen kontseilua ren begi onez egin zen erreferenduma. Eta

baiezkoa atera zen erreferendumean. Herritarrek hala nahi izan zuten, eta herritarren iritzia aurrean nik ez dut ezer esatekorik. Sistema hau ingurura eta herritarren neurriari egokitu behar da, batzuetan funtzionatuko du eta besteetan ez, toki batzuetan 5. edukiontzia funtzionatzen duen moduan eta beste batzuetan ez. Inportanteena birziklatzea da eta gaika ahalik eta gehien jaso ahal izatea. Nire alderdian baziren hau onartzen zutenak eta baita kontrako iritzia zutenak ere. Baina inoiz ez zidaten presiorik egin eta horrek ez du ni aurkezteko erabakian eraginik izan. Ea Hernanin, Oiartzunen eta atez atekoa ezarri nahi den herrietan erreferendumak egiten diren, sistema ezarri aurretik, eta ea herriak bozkatzeko duena onartzen den.

AMAYA GOYARAN

“Nagusiki, osasun arazoengatik ez nintzen berriro aurkeztu”

N. Ricardo Crespo zinegotzi gazteak hartu du zure lekukoa. Ze aholku emanago zenioke?

A. G. Nahiz eta gaztea izan, baduela zinegotzi lanetan esperientzia, administrazioaren berri baduela eta Usurbilgo beharrik ezagutzen dituela, hemen bizi delako. Berari esango nioke zinegotzi lana ondo egiteko, udaletxe egokian aritzeko zortea izango duela. Udal langileen artean dagoen giza-talde hau nekez aurkituko duela beste udaletxe batean. Oso langile onak dira baina pertsona hobeak.

Lan asko egiteko Usurbilgo herriak eta herritarrek merezi dutelako, herritarrek entzun eta atenditu ditzala, bera bozkatu duten herritarrei eta bereziki berari bozkatu ez diotenei.

N. Zein izan da une politena urte hauetan guztietan?

A. G. Zaila da esatea, irribarre bakoitza, agur bakoitza, konfidentzia bakoitza... Herri honentzat erabaki onena hartu izanaren ustearekin etxera bueltatzea. Eta



AMAYA GOYARAN 12 URTEZ IZAN DA PSE-EEKIN ZINEGOTZI UDALETXEAN.

N. Eta okerrena?

A. G. Askok. Atentatu edota hiletako bakoitzaren ondorengo bakardadea; bidean geratu diren lagun guztiak... Eta askatasun faltan eman ditudan 11 urteak, batzuk nahi duten moduan pentsatzen ez dudalako.

N. Besterik esateko?

A. G. Eskerrak eman nahi dizkiet herritarrei, 12 urteotan zinegotzi moduan aritzeko aukera emateagatik. Egindako akatsengatik barkamena eskatu baina ziurtasun osoa izan dezatela, herriarentzat onena zelakoan egin dudala egin dudana guztia.

Udal langileei mila esker, lagundu eta erakutsi didazuen guztiarengatik. Eta eskatzen nuen gauza bakoitzarengatik oparitu dizkidazuen irribarrengatik. Hedabideei ere eskerrak asko, bereziki NOAUA!ri, urte hauetan guztietan hain ondo tratatu nauzuelako.

Udaletxean egon diren guztiak izan nahi ditut gogoan baina bereziki hiru pertsona: Jose Luis idazkaria, lehen aldiz kargua hartu nuenean, irribarre batekin esan zidanean “lasai, zure ondoan nago ni”.

Begoña Garmendiari, administrazio lokalari buruz eskola ederrak eman zizkidalako eta batez ere ideologiaren gainetik nire laguna dela adierazi izan didalako.

Eta Jose Antonio Altunari, nire lehen alkatea izan zen eta duela gutxi zendu da.

Eta oroitzapen sentitua eta nire errekonozimendua, 12 urteotan erailak izan diren guztientzat, Froilan, Juan, *Pelo pincho*, Isaías, Joseba.... Eta besarkada bero bat euren senideentzat.

Alazne Olaizola, Zubietako alkate berria

Larunbatuz geroztik, osatua gertatu da Zubietako Herri Batzar berria eta alkatea ere hautatua dago jada. Usurbil aldeko hautagaiak Alazne Olaizolak hartu du Imanol Azpirozaren lekukoa bi urterako, 2013tik 2015era Donostiakoaren txanda izango da, Fernando Iturraldearena. Kargu hartze ekitaldia Zubietako Kaxkapen burutu zen. Ezohiko irudia utzi zuen ekitaldiak. Aspaldiko partez, Usurbilgo udaleko alkatearekin batera, bertan izan baitzen Gipuzkoako hiriburukoa ere.

Maiatzaren 22ko hauteskundearen ostean, pixkanaka erakundeak eraberritzen doaz. Joan den larunbatean, 18an Herri Batzar berria osatu zen Zubietan. Alazne Olaizola izango da datozen bi urtetarako alkatea. Usurbilgo hautagaien artean bozka gehien jaso zituen maiatzaren 22an. 2013an Donostia aldeko hautagai bozkatuenak Fernando Iturraldeak hartuko du lekukoa, 2015. urtera arte. Herri Batzarra osatuko duten beste hiru kideak honakoak dira: Usurbil aldetik, Unai Agirre eta Joxeli Arostegi. Donostia aldetik, Iturralderekin batera Mikel Munduate.

JUAN KARLOS IZAGIRRE

“Deszentralizatzearen alde egingo dugu. Honetan sakondu eta herriak erabakitzen duena errespetatzeko prest gaude”

Herritarren hitza errespetatzeko eskaera, Zubietatik

Kargu hartze ekitaldia herri batzarra osatzarekin ekin zitzaion, eta gero, hurrengo bi urteetan alkatetzatza Usurbil aldeko ordezkari zari egokitzen zaionez, Usurbilgo udaleko alkate berriak Mertxe Aizpuruak, hauteskundeetako hautagai bozkatuena, Alazne Olaizola, babestu zuen.

Txalo artean eman zioten ongi etorria alkate berriari. Eskerrak emanez, karguari ilusionaturik eta gogotsu helduko ziola burutu zituen bere lehen jendaurreko adierazpenak. “Esateko dituzuenak entzuteko prest gaude”, zuzendu zitzaion zubietarrei. Baina proiektuak gauzatzea Herri Batzarrek bakarrik ezin duela egin zioen.



DONOSTIA ETA USURBILGO ALKATEEN BABESA IZAN ZUTEN.

“Zuen laguntza behar dugu”, adierazi zien. Orain arte bezala herri nortasunari eutsiko diotela ziurtatu zuen, eta horren haritik, bai Usurbilgo zein Donostiako udalei errespetua eskatu zien. “Entzunak izatea, zubietarren hitza entzun eta errespetatzea”, eskatu zuen.

Aro berri baten hasieran kokatu zuten kargu hartze ekitaldia, bereziki, Donostiako ordezkariaren parte hartzea zela eta, gogorarazten zuenez, hiriburuko erakunde nagusiarekin orain arte, “hutsaren parekoa izan da harremana”. Usurbilgo Udalarari, “orain arteko bideari jarraitzea” galdegin zion. Hitz gutxitan, elkarlanerako deia egin zuen alkate berriak, aro berri honetan, zioenez “aire garbiak bira dezan”.

Bi urte barru alkate izango den Fernando Iturraldeak, desio bat ere agertu zuen Zubietara begira. Usurbil eta Donostiako udalei erreferentzia eginez, “historikoa litzateke, hona etorri behar ez izatea”.

Zubietako egitasmoak berraztertze asmoa, Donostiatik

Donostia eta Usurbilen artean zatitua dagoen Zubietara islatu zen beste behin, larunbateko kargu hartze ekitaldian. Baina era berean aro berri baten hasiera irudikatu zuten bertaratu zirenek. Egun historikotzat jo zuten, aspaldiko partez, Usurbilgo udaleko alkatearekin batera, ekitaldira gerturatzera Donostiako alkatea.

Kargua hartu berri duen Juan Karlos Izagirrek (Bildu) mezu argia eta ezberdina helarazi zuen. “Deszentralizatzearen alde egingo dugu. Honetan sakontzeko eta herriak erabakitzen duena errespetatzeko prest gaude”, adierazi zuen Izagirrek.

Zubietara kokagune izango luketen hainbat proiektu, hala nola, errauste planta edota makroartzela berraztertze asmoa duela adierazi zuen Donostiako alkateak, hauekiko kezka agertzearekin batera. Beti ere, gai hauei loturiko erabakiak denon artean hartzea nahi du ordea. Horretarako, informazioa herritarrekin partekatu eta parte hartze zein eztabaida soziala bultzatu nahi dute Donostiako Udaletik. “Herria egin nahi dugu, herritarrekin”, adierazi zuen Izagirrek.

“Gauzak aldatzen ari dira”

Zubietarako bi alkate hautatu berriak eta zubietarrek zoriondu nahi izan zituen Usurbilgo udaleko alkate Mertxe Aizpuruak. Hauteskundearen emaitzek erakutsi duten moduan, aldaketa garaia dator bere esanetan. “Gauzak aldatzen ari dira”, zioen. Horren adierazgarri, aipatu zuenez, kargu hartze ekitaldian Donostiako alkatea bera egon izana.

Ekitaldi amaieran, aginte makila pasa zion orain arte Zubietako Herri Batzarreko buru izan den Imanol Azpirozek Alazne Olaizolari. Azpirozek egun historikotzat jo zuen larunbatekoa. Elkarlanerako deia egin eta aurrera begirako norabidea markatu zuen; bere esanetan, Zubietarako aurreikusitako dauden proiektuen inguruko “informazioa lortzea da lehen urratsa”. Aurrera begira, baikor agertu zen. “Proiektu hauek gelditzea lortu eta etorkizun hobea izatea lortuko dugu”, adierazi zuen.

Ion Astiazaran

Munduko Wakeboard Txapelketan parte hartzera doa Milanera

Kirol eskaintza zabala, anitza da gaur egun. Badira ordea, egunerokoan jarraipen zabala ez duten jarduerak, hedabideetan gutxi agertzen direnak, eta neurri batean, ezezagunak direnak. Wakeboard-a adibidez. Ion Astiazaran herritarrak zazpi urte daramatza buru-belarri jarduera honetan. Hasiera batean zaletasun hutsa zena, ogibidea du egun gainera. Txapelketetan ere ezin hobeto dabil. Uztailen Milanen jokatu den Munduko Txapelketan parte hartuko baitu.

NOAUA! Zer da wakeboard?

Ion Astiazaran. Snowboard eta surfaren arteko kirol jarduera dela esango nuke. Uretan praktikatzen da, barku batek tira eginda.

ION ASTIAZARAN

“Gure kirola praktikatzeko baldintza hobereena, ura ahalik eta leunena eta barena egotea da”

N. Itsasoan ez, ibai edo lakuetan ibiltzen zarete?

I. A. Gure kirola praktikatzeko baldintza hobereena, ura ahalik eta leunena eta barena egotea da. Itsasoan noski, hori lortzea oso zaila da, gurean batez ere. Orain arte errioko praktikatu izan dut, Orian, eta bestela, gehienez lakuetan egiten da.

N. Zer beste baldintza behar dira?

I. A. Haizea. Geroz eta haize gutxiago egon hobeto. Beste baldintza, lortzeko zailena, nonbaitetik barku bat eskuratzea da.

N. Orian entrenatzen zaretela diozu. Nola irudikatu behar dugu zuen presakuntza saio bat?

I. A. Orain arte Orian ibili gara. Lauzpabost urtez entrenatzen egon gara,



ORIAN HASI ZEN BAINA ORAIN ULIBARRI-GANBOAN ENTRENATZEN DU.

leku idiliko bat da, paradisua. Kanpotik jendea ekarri izan dut. Jendeak oso leku ona dela dio, baina baimen aldetik, guretzat ez da oso legala bertan entrenatzea. Horregatik, orain Gasteizen gabiltza, Ulibarri-Ganboan entrenatzen dugu.

N. Nola antolatzen zarete hara joan etorrian ibiltzeko?

I. A. Ahal den bezala. Hemen arraunlariak badira Kantabria aldera entrenatzera doazenak, gu ere antzeko ibiltzen gara.

N. 23 urterekin ezagutu zenuen kirol jarduera hau. Nola deskubritu zenuen?

I. A. Lehen elurretara asko joaten nintzen. Udar ordezko jarduera bat bilatu nahian, lagun batek esan zidan bazekiela uretan zerbait egiten zela, barku baten atzetik. Probatu behar nuela erabaki nuen. Taula bat hartu nuen. Lagun bat nuen, uretako moto bat zuena. Komentatu nion, ia berari zer iruditzen zitzaion ni bere atzetik joatea. Baietz esan zidan, arazorik gabe. Hala hasi ginen. Azkenean, bion artean barku bat erosi genuen.

N. Gerora zaletasuna lanbide bihurtu zen?

I. A. Arabako Federakuntzako lehen-

dakaria naiz. Materiala ere saltzen dut, barruraino sartua nago.

Eider Rodriguez, Espainiako txapeldun

NOAUA! Beste usurbildar bat ere badabil zurekin?

Ion Astiazaran. Neska laguna, Eider Rodriguez. Bera aurten Espainiako txapeldun geratu da. Zaletu bezala gehiago ibiltzen da.

N. Noiz eman zenuen lehiatzen hasteko pausoa?

I. A. Txapelketetan orain arte oso zorte txarra izan dut. Beti lesioak tarteko edo, gaizki ibili izan naiz. 2006an jokatu nuen lehen txapelketa Gironan. Oso ondo joan zitzaidan eta irabazi egin nuen. Inork ez zidan ezagutzen. Espainiako Txapelketara joan eta tipo hau nondik etorri den, irabazi egin nuela, horrela hitz egiten hasi ziren neure inguruan. Jada hasi ziren sponzorak ateratzen. Hurrengo urtean, berriz joan nintzen Espainiako Txapelketara, baina jada oso zorte txarra izan nuen. Ez nengoen oso ohituta lehiatzera eta nahiko gaizki aritu nintzen. Hurrengo urtean, lesionatu egin nintzen, hurrengoan berriz.

Bigarren izan da Espainiako Txapelketan

NOAUA! Ekaina hasieran jokatu zenuten Espainiako Txapelketa. Zer moduz joan zen?

Ion Astiazaran. Nahiko ondo joan zait. Bigarren geratu naiz. Egia esan, gaizki egin nuen, lehena geratzea espero bainuen. Aurten, sponsor batek hartu nau, Arnette betaurreko marka batek. Burubelari sartu da kirol hau bultzatzera. Berak antolatu du Espainiako Txapelketa. Sevillan izan zen eta nahiko indartsua izan zen. Txapelketa lehenago promozionatu nahi zuten, eta Guadalquivirren argazkiak ateratzeko baimena lortu zuten. Neure argazkia hautatu eta hainbat hedabideetan atera da.

N. Hortik orain Munduko Txapelketara zoaz?

I. A. Zortzi pertsona izan gara hautatuak, eta orain Milanera goaz, Munduko Txapelketara, uztailearen 13tik 18ra.



EGUNERO ARI DA GOGOR ENTRENATZEN, MUNDUKO TXAPELKETAN PENTSATZEN.

N. Hilabete falta da. Nola doaz pres-takizun lanak eta zer aurreikuspenekin zoazte hara?

I. A. Neure asmoa aurreneko zortzi edo

seiren tartean sailkatzea da. Eta bitartean gogor entrenatu behar, egunero Gasteizera joan, etorri edo han geratuko gara.

Gasteizko federazioko lehendakaria da

NOAUA! Euskal Herrian bazabiltzate kirol honen inguruan. Erakustaldiak antolatzen dira hemen?

Ion Astiazaran. Egiten dira. Duela bi urte bat egin zen Orion. Aurten bat egin nahi nuke Donostian. Proposamena bidali dut, eta ia zer esaten didaten.

N. Kirol jarduera honek alderdi ludikoa ere bai baitu?

I. A. Oso ikusgarria da. Azkenean saltoak, jirak eta aireko txiri bueltak dira. Jendeari atentzioa asko deitzen dio. Esker oneko kirola da. Lehen hamar minututan izugarri gozatzen da. Erraza da hastea. Ez da elurretan bezala, lehen astea gogorra izaten baita. Hemen lehen eguna hobere-na izaten da. Okerrena gero etortzen da, aurreratu nahi duzunean.

N. Kirol hau promozionatzen ere aritu zara. Erraza egiten zaizu ezagutze lan hau bultzatzea?

I. A. Oso zaila da. Kirol jarduera hau ez da ezaguna, eta gainera leku espezifiko batzuetan praktikatzen da. Kirol jarduera honek lan gehiago eskatzen du gainera, konplikatua da.

N. Inguruotan badira leku egokiak?

I. A. Aukera oso onak ditugu Euskal



“EUSKAL HERRIAN AUKERA ONAK DITUGU”.

Herrian, ibai ederrak ditugu. Gertatzen dena da, zaila dago, azkenean burokratikoki, legeak daude eta entitateek ez dute asko laguntzen eta zaila da.

N. Hemen zabilzatenok talde bezala antolatuak zaudete?

I. A. Denak elkar ezagutzen gara. Gure artean antolatzen gara. 2009an fundatu nuen Donostian klub bat, “Euskowake” izenekoa. Horren inguruan ibiltzen gara. Orain nola Gasteizko federakuntzako lehendakaria naizenez, Donostiako kluba eta Gasteizko Federakuntza batu nahi ditut eta Euskal Herriko federakuntza sortu. Hori lortuta, askoz indar gehiago izango genuke, dena errazago litzateke.

Usurbil Cup

Txapelketako finalak

Hilabeteko jardunaldien ostean, larunbat honetan, ekainaren 25ean jokatuko dira Usurbil Cup txapelketako final saio nagusiak. Arratsaldeko 15:30etik aurrera azken sei partidak burutuko dira frontoian. Amaieran, 20:30ak inguruan sariak banatuko dituzte antolakuntza lanetaz arduratu diren Usurbil FTko ordezkariak; dominak hain zuzen, jokalari guztientzat. Antolatzailaek eskerrak eman nahi dizkiete, “lagundu diguten guztiei, baita babesleei ere”.

15:30 Infantilak: Hau pena eman-goiaul-Pepito's Grillo's T.

16:20 Minibenjamin eta benjamin neskek: Bordatxo-Lizardi.

17:10 Benjaminak: Arantxa Akademia-Kaxkamelak.

18:00 Minibenjaminak: Josue Igeltseritza-Bruño Mariskoak B.

18:50 Alebinak: Zumitza Eraikinak-Aialde Berri.

19:40 Alebin eta infantil neskek: Bolitxe's-Pauma.

20:30 Sari banaketa.

Euskal pilota Usurbilen, herritar guztientzat aukerak sortzen

Usurbilgo Pagazpe pilota elkarteak lan polita egiten ari dira. Pilota ez baita kirol huts bat. Gure kulturaren adierazgarri ere bada. Hirugarren ezaugarri bat ere badu, bereziki Usurbilen: integrazioa-ko baliogarri den jokoa da pilota. Argazkian ageri direnei galdetu bestela. Gurpildun aulkia ez du zertan oztopo izan behar. Alderantziz. Datorren astean, gomazko paleta erakustaldia eskainiko dute frontoian.

Federatu mailako pilotariak praktikatzen duten kirola baino zerbait gehiago da euskal pilota. Hala diote Pagazpe elkarteak igorri diguten idatzian: “Eskola adineko ikasleek egiten duten Eskola Kiroleko jardueraz ere haratago doa. Euskal Pilota herritarrek gozatzeko eskura duten gure kulturako kirol-jokoa da. Eta orain artean Usurbilgo herritarrek ez badute modu horretan ikusi (bere sentitu), bada, hori lortzeko asmotan gabil-tza”.

ASTEARTEAN FRONTOIAN

“Gurpildun aulkikoaren arteko partiden ondoren, emakumezkoen zein gizonezkoen txapelketen finalak jokatuko dira”

Usurbilgo Pagazpe pilota elkarteak, udalarekin auzolanean, hainbat herri txapelketa antolatuta ditu. Batetik, azken urteotan burututako gizonezkoen gomazko paleta herrikoa. Eta bestetik, aipamen berezia merezi duen eta azken urteotako saiakeren fruitu lehenengo aldiz gauzatu den emakumezkoen txapelketa herrikoa. Azken hau, paletaz fronteniseko pilotari-ekin jokatu da. “Ea Gipuzkoako hainbat eta hainbat herritan gertatzen ari den moduan Usurbilen ere emakumezkoen pilota errotu eta adin talde ezberdinetako parte-hartzea igotzen den”, hori da Pagazpekoen ilusioa.

Baina sozializazio prozesu hau zabal-



EZKERRETIK ESQUINERA, BEHEKO LERROAN, URKO (TOLOSA), EDORTA (LEKUNBERRI), EDURNE (PLAENTXI), PATXI (LASARTE), ANDONI “AIZPE” (USURBIL) ETA BEÑAT (USURBIL) PILOTARIAK. GOIKO LERROAN, JURGI ETA OIDIU ENTRENATZAILEAK. IÑIGO ARRONA, HIRUGARREN ENTRENATZAILEA FALTA DA.

tzen ari da. Integrazioaren bideari jarraituz, Usurbilgo Pilota Elkarteak, Gipuzkoako Kirol Egokituen eta Euskal Pilotako Federazioekin elkarlanean, hainbat jardueretan parte hartu dute Pagazpeko kideek: “azken bi asteburuetan, Errenterian eta Donostian, gomazko paletaz gurpildun aulkian jarduten duten gure elkarteak pilotariak hainbat partida jokatu dituzte. Duela lau urte inguru, bi pilotariarekin hasitako frogatxo, gaur egun, sei pilotarik osatzen duten entrenamendu-taldean bilakatu da”, dio Pagazpe elkarteak. Asteartero, bi orduko entrenamendua burutzen dute Zubietako pilotalekuan.

Erakustaldia frontoian

Ekainaren 28an asteartea, arratsaldeko 17:30ean hasita, Usurbilgo plazako pilotalekuan argazkiko pilotariak hainbat partida jokatuko dituzte eta, jarraian, bi txapelketetako finalak jokatuko dira, emakumezkoena zein gizonezkoena. Hau izango da datorren astearteko partiden ordena:

Gomazko paleta partidak, gurpildun aulkian, arratsaldeko 17:30ean. Argazkiko hiru bikoteen arteko hiru partida, denek denek aurka jokatuz.

Emakumezkoen txapelketako finala, 18:30ean.

Gizonezkoen txapelketako finala, arra-

tsaldeko 19:30ean.

Partida hauek amaitzean, bi txapelketetan parte hartu duten pilotariak zein gurpildun aulkiko pilotariak ekitaldi herriko honi amaiera emateko afaria egingo dute.

Pagazpekoak pozarren dira pilota jokorekin osatzen ari diren bidearekin: “aro berriak eta pilota joko zaharrak, konbinazio bikaina! Goza dezagun guztiok euskal pilotaz. Goza dezagun guztiok gure kultura motorraz. Bakoitzak nahi duen moduan (eskuz edo erremintaz), bakoitzak bere mailan (federaturik edo federatu gabe), bakoitzak bere neurrian (lehiatuz edo lehiatu gabe) eta nahi duen konpainiarekin, baina era guztietara, euskal pilotako kirol-joko hauek probatzeak merezi du”.

Pala txapelketako finalerdiak, igandean

Ekainaren 26an igandea, arratsaldeko 19:00etan, pala txapelketako finalerdiak jokatuko dira. Lehen partidari, bikote hauek arituko dira:

Igor Alkorta – Eneko Arregi.

Imanol Esnaola – Haritz Zubiaur.

Bigarren partidari:

Unai Loidi – Josu Errekondo.

Josu Arruti – Jon Olaizola.

Jendaurrean aurkeztu ondoren, gazte programa osatzeko asmoa du Itaya taldeak

Aurreko asteetan egindako ekimen deigarriaren ostean, joan den ostiralean aurkeztu zen jendaurrean Itaya gazte talde berria. Deialdiak erantzun zabala jaso zuen, Artzabaleko bilera aretoa ere txiki geratu baitzen. Azken hilabeteotan burutu den diagnostia aurkeztu zuten eta aurrera begira jarri. Gazte programa bat osatzea da hurrengo euren erronka, eta horretarako lan taldeak sortu nahi dituzte.

Itaya gazte taldeak ostiralean aurkeztu zuen bere burua, Artzabalen burutu zen jendaurreko lehen bileran. Bertara agertzeko bilgunetik eginiko deialdiak, erantzun zabala jaso zuen herriko gazterien aldeetik.

Lehenbizi, herriko ehun gazte elkarrizketatuta, hainbat arloetan detektatu zituzten arazoekin osatu zuten diagnostia aurkeztu zuten. Lanketaren emaitza bideobatean grabatu zuten, eta youtuben ikus daiteke, "Usurbil saretzen" hitzak idatzita.

Kalea berreskuratu nahi

Hainbat ondorio nagusi atera dituzte lanketa horretatik. Etxebizitza ez dagoela eskuragarri gazteentzat, eta euren ustez, alokairu soziala bultzatu behar da. Horretarako gainera, lanpostu bat behar da. Diotenez ordea, lan finkoa amets hutsa da, eta lan baldintzak kaxkarrak dira. Euskara bultzatzeko beharra ere sumatzen dute, erabilerak behera egin duelako. Sare sozialek indar handia hartu duten honetan, irizpide propiodun eta informazio gardena eskainiko duen gazteei zuzenduriko hedabide bat falta dela diote, "gazteoi kritikoak izatea bultzatuko gaituena".



AURREKO OSTIRALEAN ARTZABALEN ELKARTU ZIREN.

Berdintasun alorrari buruz bi kontu nabarmendu zituzten; batetik, elkarte gehienetan oraindik emakumeek ezin dutela sartu, eta zailtasunak daudela gazteen arteko harremanetan. Drogen gaiari dagokionez, kontsumo handia dela aipatu zuten, "gazteria lokartu eta pasibotasunera" eramaten duena. Aisialdiari dagokionean hain zuzen, "lokaletako pasibotasunarekin bukatu" nahi dute eta kalea berreskuratu. Drogak gertu dituztela eta

hauekiko normaltasun egoera nagusitu dela gaineratzen dute.

Kezka iturri diren beste bi arlo ere jasotzen ditu aipatu diagnostikoak. Batetik, hezkuntza alorrean, Bologna prozesuari lotuta egon den informazio falta, eta batetik, Euskal Herriari begira sumatzen duten salbuespen egoera, errepresioa eta "euskal gazterien zapalkuntza". Beharrezkotzat jotzen ez dituzten makro proiektuekiko ere kezka agertzen dute.

Bilera deitu dute uztailaren 6rako

Bururiko diagnosiarekin, orain du Itaya taldeak. Horretarako, arlokako lan taldeak sortzekotan dira, detektatu dituzten arazoei, modu berean, arloz arlo aurre egiteko. Eztabaida bultzatuz, alternatibak bilatu nahi dituzte. Gero ideiak batzeko, talde guztiak "iraultza txikien asanblada" deiturikoan bilduko dira. Hain zuzen, hori baita Itayaren printzipio nagusietako bat: herri mailako iraultza bultzatzea, eta herriz herri

sortzen ari diren gainerako taldeekin batera, iraultza Euskal Herrira hedatzea. Horregatik, aurrera begira, helburuak lortzeko diotenez, "kontzientzia kolektibo hartu behar da". Hiru lan ildo nagusi proposatu zituzten: batetik, iraultza inguruan hausnartzea, euren burua hezteko, eta kritikotasuna bultzatzea gazteen artean. Honi guztiari buruz hitz egiteko bilera deitu dute, uztailaren 6rako, 19:00etan Etumeta-AEK euskaltegiko egoitzan.

 **Kima** 
MASAJE LEKUA
·KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA
· KOLONAREN HIDROTERAPIA
Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

 Josue
Igeltseritza:
☎ 606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

Zuen
publizitatea
hemen
☎ 943 360 321
publizitatea@noaua.com

Pasa den asteburuan hasi ziren festak, baina egun onenak falta dira oraindik

Haurren eguna, Oilasko bil-tzaileen eguna... Dagoeneko hainbat ospakizun egin dituzte. Baina ekitaldi ugari falta dira oraindik. Eta egun seinalatuenetan, gainera.

Auzotarren arteko jolasekin hasi ziren festak, pasa den ostiralean. Gaztetxoek izan ziren jolas ezberdinen bitartez giro ederra jarri zutenak. Asteburuan ere gazteak izan dira protagonistak, aldameneko argazkian ikus daitekeen moduan.

Ostiral honetan ordea, soka-dantzan, helduak izango dira plazara aterako direnak. Eta ekainaren 24ko jai biribiltzeko, soka-dantzaren ondoren sardina eta sagardo dastaketa hasiko da.



LARUNBATEAN, HERRIKO DANTZARI GAZTEAK ARITU ZIREN KALEZARREN.



AUZOTARREN ARTEKO JOKOETAN OSO GUSTURA IBILI ZIREN GAZTEAK.

San Joan jaiak Kalezarren

Ekainak 23 osteguna,

San Joan bezpera

15:00etan: San Joan eskearen irteera.

22:00etan: San Joan sua.

Ondoren: Eskearen jarraipena.

Ekainak 24 ostirala,

San Joan eguna

11:30: Meza nagusia.

Ondoren, toka.

13:00: "Gorritiren showa".

16:00: Buruhandiak.

19:00: Soka dantza. Ondoren:

sardina eta sagardo dastaketa

Saizar sagardotegiaren eskutik.

Ekainak 25 larunbata

16:00: Haurrentzat eta helduentzat jokoak (futbola, biletta...).

19:00: Tortila patata lehiaketa.

23:30: Desegin + Odolaren Mintzoa + Itzartu.

Oharra: Jai Batzordea ez da jaietan gerta daitezkeen istripu edo ezbeharrez arduratuko.

ARGILAN

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

629 272 859 eta 943 36 13 80

BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL

Otar-Goxo
Elizkarguak

Zubiaurrenea, n°2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
☎ 943 370 008

Uztailean, Pirinioetara asteburu pasa

Aurreko urteen ildotik, bi eguneko mendi irteera antolatuko dute Andatza Mendizale Elkartekoek Pirinioetara, uztaileko bigarren asteburuan. Uztailearen 9 eta 10erako txangoan parte hartu nahi dutenek ordea, izena aldeztu aurretik eman beharko dute, uztailearen 4a baino lehen.

Antolakuntzatik berri eman dutenez, "ikasleek 20 euro ordaindu beharko dute izena ematerakoan eta gainontzekoek 30 euro, aterpeko pentsio erdia eta autobusa barne direlarik. Aurretik 10 euro jarriko dira". Dirua, mendizale elkarteak Kutxan duen honako kontu korrante zenbakian ingresatu behar da:

2101 0069 16 0121883656. Izen ematerakoan, aipatu moduan, 10 euro ordaindu beharko dira.

Bi egunotarako honako egitaraua presatuko dute Andatza Mendizale Elkartekoek:

Uztaileak 9 larunbata

6:30 "Irteera autobusez Oiardo udal kiroldegiko aparkalekutik. Astuneko eski estaziotik abiatu, eta 2.268 mko Pico de



BESTEAK BESTE, BI TONTOR HAUETATIK IGAROKO DIRA.

Mala Cara igo ondoren, gainez-gain Pico de la Canal Roya eta Peña Blanca igaroko ditugu Portaletera iristeko. Ibilbidea 5 ordu ingurukoa izango da. Autobusak Piedrafita de Jacako aterpera eramango gaitu, bertan afaldu eta lo egiteko".

Uztaileak 10 igandea

"Aterpean gosaldu ondoren, autobusak Escarrillara eramango gaitu, eguneko txangoari hasiera emateko. La Escarrako urtegitik pasa ondoren 2.303 mko Pico de Las Tres Hugas aldera abiatuko gara. Gailurra egin ondoren Izas lepora jaitsi eta Izas Canala hartuko dugu Canfranera iristeko. Ibilbidea 7 ordu ingurukoa izan-

go da. Ondoren autobusez Usurbilera itzuliko gara".

Bilera deialdia

Uztailearen 7an arratsaldeko 19:00etan, bilera egingo dute Andatzako egoitzan, "ibilbidearen xehetasunak, ordutegiak, argibideak eta eraman beharrekoak argituzeko". Antolatzaileek ohartarazten dutenez bestalde, "Andatza Mendizale Elkartek antolatzen dituen ekitaldietako eta irteeretako federatuen istripuak, mendi federazioko aseguruak babesten ditu. Gainontzeko partaideen aseguruak norberaren ardura da". Informazio gehiago: www.andatza.com

Kirol herri bizia agerian geratu zen

Kiol taldeak, kirolariak, zaleak... Guztiak Kirolaren Egunean bildu ziren joan den larunbatean. Goizean hasi eta iluntzera arte, urtean zehar kirolari talde eta elkarteek burutzen duten lana kalera atera eta herritarrek arlo honetan Usurbilen dagoen mugimendua ezagutzeko aukera izan zuten. Eskubaloia edota futbol partidak jokatu ziren frontoian, Kiroldegian burutu diren berrikuntzak bertatik bertara ikusteko ate irekien eguna antolatu zen, eta jai kutsu handia izan zuen egun honetarako egokitu zen hirugarren gunean, Mikel Laboa plazan, hainbat erakustaldi burutu zituzten, besteak beste, spinning edota aerobik ikastarokoek, Baxurde Txikiko kideek...

Bertan, Imanol Agirretxek hitzaldia eskaini zuen, eta herriko kirolaren alde



KIROLDEGI BARRUKO JARDUERAK
KALERA ATERA ZITUZTEN.

egin dutenak errekonozitu zituen Kirol Patronatuak. Mertxe Aizpurua alkatearen eskutik, oroigarri bana jaso zuten, Zubietako Kirol Elkarteak, Pako Alkorkak, Ramon Unanuek eta ezustean, baita Usurbil FTren inguruan urtean burutu duen lanaren esker onez, hunkiturik agertu zen Salazarrek ere. Usurbil FT Eguna ospatzen ari ziren futbol taldeetako jokalariei eta ordezkariei animo oihuak jaso zituen.

Pilota Txapelketa final-erdietara iritsi da

**EKAINAK 25 LARUNBATA,
USURBIL 12:00ETAN**
NAGUSIAK

Muguruza-Mitxelena - Urbieta-Galarraga
(Bergara) (Bidegoien)

**EKAINAK 26 IGANDEA,
USURBIL 10:30EAN**
JUBENILAK

Gallurralde-Erostarbe - Goikolea-Imaz
(Urretxu) (Oiartzun)

Olano-Tolosa - Azketa-Atxa
(Leitza) (Zegama)

NAGUSIAK

Errasti-Altuna - Alegria-Uharte
(Usurbil) (Iruñea)

Imersoren opor eskaintzan izena emateko epea zabalik

Pertsona nagusien ongizatea bultzatu nahian, Imersok hainbat bidaia antolatu ohi ditu. Andaluzia, Katalunia, Balear uharteak, Kanariar uharteak eta Portugal dira aurtengo eskaintzan jaso diren aukerak. Izena emateko epea irekita dago baina adi egon, ekainaren 28an amaituko baita izena emateko epea. Gizarte Zerbitzuetan jaso daiteke informazio gehiago.

Programa honetan parte hartzeko ondoko baldintzak bete behar dira: 65 urte baino gehiago izatea; Pentsioen Sistema Publikoko pentsioduna izatea; alarguntasunaren ondorioz pentsiodun izatea, 55 urte edo gehiagorekin; edota ezintasunaren, beste pentsio batzuen edo aurre-jubilatu pentsioduna izatea, baldin eta 60 urte beteta badituzu.

Horrekin batera, bere buruaz arduratzeko gai izan behar dute parte-hartzaile guztiek.

Aurten, Andaluzia, Katalunia, Balear uharteak, Kanariar uharteak edota Portugal dira oporretarako eskainiko diren tokiak.

Horiez gain, kultura edota naturarekin lotutako bidaia ere egin ahal izango dira.

Egonaldiak era askotakoak izan daitezke; 8 egunekoak, 10 egunekoak edo 15 egunekoak.

Izena ematen dutenei ondorengo zerbitzuak eskainiko zaizkie: joan etorriko bidaia, ostatua pentsio osoan, taldearen aseguru-poliza, osasun zerbitzua eta animazio programa.



EKAINAREN 28AN AMAITUKO DA
IZENA EMATEKO EPEA.

Programa honetan izena emateko, Gizarte Zerbitzuen egoitzara (tf. 943 377 110) joan eta inprimaki bat bete behar da. Internetez ere eskuratu daiteke inprimakia, <http://sede.imerso.gob.es/> webgunearen bidez. Eskerak aurkezteko epea ekainaren 28an bukatuko da.

Atzegiren kanpaina

“Gogoko ditut astelehenak” kanpaina hasi berri du Atzegik. Gipuzkoan, gero eta enpresa gehiagok deskubritu dituzte lan-taldean adimen urrikoak hartzearen abantailak. Orain, “Pauso berriak” programaren bidez, Atzegik eta Gureak-ek lan-praktikak sustazeko ekimen bat jarri dute martxan.

Ez dago kontratu bidezko loturarik enpresaren eta praktiketako pertsonaren artean. Aitzitik, legearen babesa erabatekoa da. Are gehiago, “praktiketako pertsonaren prestakuntza osoaz arduratzen gara, eta, beharra badu, lanpostuan lagunduko diogu”, diote Atzegitik. Informazio gehiago 943 42 39 42 edota web orrialde honetan: www.atzegi.org

Musika Txokoaren kontzertua Udarregin

2010-2011 ikasturtea behar bezala amaitzeko, kontzertuak eskaintzen ari dira egunotan Zumarte Musika Eskolako ikasleak.

Ostegun honetan, ekainak 23, Musika Txokoko ikasleen emanaldia iragarria dago, arratsaldeko 18:00etan Udarregi ikastolan. Emanaldi honen ondoren, iraila arte hartuko dituzte oporrak Zumarten.

Zirriborro tailerrekoen erakusketa

Ekaina amaitzerako beste erakusketa bat ere iragarria dago. Santixabeletan ikasturtean zehar Zirriborro tailerreko ikasleek sortu dituzten pintura eta eskulanak eza-gutzeko aukera izango da, Sutegiko aretoan, jaiek iraun artean; hau da, ekainaren 30etik uztailaren 3ra. Goizez, 11:00-13:00 artean, eta arratsaldez, 18:00-20:00 artean.

Aitzaga mus txapelketak badu irabazlerik

Markel Olaizolak eta Justo Pulidok irabazi dute Aitzaga elkarteak antolatutako mus txapelketa. Larunbatean jokatu ziren finalak, eta amaieran ateratako argazkia da azpikoa. Irazbaleak sariak eskuetan ageri dira, Albaro Bruño elkarteako kidearekin.



MARKEL OLAIZOLAK ETA JUSTO
PULIDOK IRABAZI DUTE AURTEN.

Irrien Lagunen Eguna iragarri dute irailaren 25erako

Iazko udazkenean sortu zen Irrien Lagunen Klubak bere lehendabiziko eguna ospatuko du aurten, irailaren 25ean. Antolatzaileek, Katxiporretako lagunek Usurbil hautatu dute jaialdi nagusia burutzeko gune gisa. Besteak beste, egun horretan, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen “Ongi etorri Pupu eta Lore” ikuskizuna aurreikusia dago, puzgarri, tailer, jolas, herri bazkari eta abarrekin batera. Prestakizun lanak abian jarri dituzte. Antolatzaileek ordea, Usurbilgo kultur arloko eragileen parte hartzea bultzatu nahi dute egun horri begira. Iraileko azken igandeko ospakizun eguna prestatzeko bilera deitu dute ekainaren 27rako, 17:00etan Artzabalén.

Agenda!

Ekainak 23 osteguna

- Kontzertua ikastolan 18:00etan,
Musika Txokoko ikasleak.

Ekainak 24 ostirala

- Elkarretaratzea Mikel Laboa
plazan, presoen eskubideen alde.
20:00etan.

Ekainak 30-uztailak 3

- Zirriborro tailerreko ikasleen
erakusketa Sutegin.

Goardiako farmaziak

Ekainak 23, osteguna

Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Ekainak 24, ostirala

Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Ekainak 25, larunbata

Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Ekainak 26, igandea

Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Ekainak 27, astelehena

Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Ekainak 28, asteartea

De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Ekainak 29, asteazkena

Gil, Nagusia 24 Lasarte

Ekainak 30, osteguna

Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Uztailak 1, ostirala

Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Uztailak 2, larunbata

De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Uztailak 3, igandea

De Miguel, Nagusia32 Lasarte

* Larunbatetan, *Usurbilgo bi farmaziak*
irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Aizpurua, Latxunbe Berri, 11, Hernani
Telefono zenbakia: 943 336 077.

Sexu heziketa tailerra antolatu dute Gaztelekuan

Bi saioez osaturiko sexu heziketaren inguruko tailerra antolatu dute Gaztelekuan, ekainaren 25 eta 29rako. DBHko 1.mailako ikasleei zuzendua dagoen ekimenak, besteak beste, gorputz fisiologia, hilekoa kudeatzeko baliabideak, pornografia, sexu jokabideak, desioaren orientazioa, antisorgailuak, prostituzioa, maitasuna, sexu arriskuaren prebentzioa, indarkeria sexuala eta genero rolen gaiak jorratuko dituzte.

Hartara, sexualitate gaiaren inguruan hitz egiteko partaidetza errazteko giroa sortu nahi dute, alderdi fisiko, psikologiko eta soziala kontuan izanik gai honi buruzko informazioa eman, gai honetan gazteek dituzten jarrerak kritikoki aztertu, sexualitate kontzeptua argitzea modu



LARUNBATEAN IZANGO DA LEHEN SAIOA, ASTEAZKENEAN BIGARRENA.

positibo batean bizi dezaten, baita gai honen inguruko mito edo informazio faltsuak deuseztatzea ere. Interesdunek ekainaren 23a baino lehen eman behar dute izena ikastaroan. Bi saioak Gaztelekuan eskainiko dira, ordutegi honetan:

Ekainak 25, larunbata: 15:30-17:30.

Ekainak 29, asteazkena: 16:30-18:30.

Sorospen ikastaroa

Artzabalen

Ikastaro teoriko-praktiko honetan izena ematen duenak, lehen sorospenak egiteko oinarriko ezaguerak jasoko ditu. Bihotz-biriken suspertzea, zauriak, hausturak, erredurak,...

Interesatuta dagoen edozeini irekia dago ikastaro hau. Aldez aurreko ezaguerak ez dira beharrezkoak.

Egunak: uztailaren 4tik 15era.

10:00etatik 13:00etara, Artzabalen.

Matrikula: 100 euro. Talde murriztua. Leku libre mugatuak.

Azterketak gaintzen dituzten ikasleek, sorospen tituluarekin batera, EHUrako baliogarri diren 2 kreditu jasoko dituzte.

Informazioa, izen-ematea: 943 464622
www.dyagipuzkoa.com

Ate irekien eguna

Aginagako ludotekan

Ikasturtea borobiltzeko festa eguna antolatu dute Antxomolantxa Elkarteak Aginagako ludotekan, ekainaren 30ean. Ate irekien eguna ospatuko dute eta horretarako zenbait ekitaldi antolatu dituzte. Hasteko, haur jokoak eta film emanaldia eguerdi partera arte. Gero, bazkaria Aginagako soziedadean. Otordura joateko asmotan dabilenak, aldez aurretik izena eman behar du telefono zenbaki honetan: 650 692 458. Festa egunean parte hartzeko gonbita luzatu nahi zaie herritarrei.

10:00 Haur jokoak eta film emanaldia 3 urtetik gorako haurrentzat: "Mid".

14:00 Bazkaria.

16:30 Antzerki emanaldia. Patata Tropikala taldearen "Amona Joxefina".

txirriStra
KONTSEJUZARRA 13
943 360 466
pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak
TABERNA

teilatuak eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE
Obaba kalea 29 · ASTEASU
943 69 68 52 · 620 800 186

ETXEBIZITZA

- Usurbilen edo inguruan, alokairu konpartituan etxe baten bila nabil (ekainetik aurrera). 622 856 181.
- Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. Telefonoa: 699 720 940.
- 60 metro karratuko etxea salgai Santuenea 26an. Sukalde handia, egon gela, 2 logela, komuna, 2 balkoi eta 3 leiho, dena kanpokaldera ematen duena. Ganbara eta 12 metro koadro trasteroa. 185.000 euro. 666539284
- 85metro karratuko etxebizitza bat alokatzen dut Usurbilgo kaxkoan. 3 gela, bi terraza eta trasteroa. Bermea eskatuko da. 616064059 (gauetan deitu).
- Usurbilen alokairuan dagoen pisu baten bila nabil. Idoia 695733535.
- Kaxkoan pisua alokatzen da. 2 gela, sukaldea, sala eta komona. Tlf: 670070562
- 60 metro karratuko pisua salgai kaxkoan, 2 gela, sala, sukaldea, komuna eta trasteroa. Dena berrituta eta amueblatuta. Igogailua, hiru balkoi eta oso eguzkitua. Tlf: 686969112
- Kaxkoan etxebizitza salgai. Hiru logeladuna, bi komun eta trasteroarekin. 685 731 792.
- 90 metro karratuko pisu bat daukagu salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukaldea, bi komun eta 7 metro karratuko ganbara bat. Oso eguzkitua eta bizitzen jartzeko moduan dago. 699680265 (eguerdian edo 20:00etatik aurrera deitu).
- Etxebizitza salgai Santuenean. Hiru logela, sukaldea, komuna. 130.000 euro. 665 736 896 (Iñaki).
- Lokala alokatzen da Atxegalden (lehen Truke zena). Prezioa: 360 euro. 943 373 414.
- Orioko Alde Zaharrean, etxebizitza bat salgai. Bi logela, bainu gela, sukaldea-sala. 661 679 691.
- Etxebizitza alokatzen da, Oropesa de Mar (Castelló) herrian. 655 731 915.
- Lau logeletako etxebizitza salgai Atxegalden. Ganbara ere badu. Aukera dago etxe azpian garajea erosteko. 699720940
- Salgai dago Usurbilen etxe familiar polit bat, kiroldegia ondoan. Tel. 646.041915 Amaia.
- Kale Nagusia 10, lokal komertziala salgai, 133 m2. 943 365 299
- Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 606 457 112.
- Neska euskaldunak pisu bat hartuko luke errentan Usurbilen. Interesatuak deitu 647 486 232.
- Landexa bat salgai Alfaron. Terreno eta pistinarekin. Herriatik 1,2 km-ra. 2 logela, egongela tximenearekin, sukaldea, komuna, portxea. 675702428 (gauetz).
- Muna Lurra kalean etxe bat alokatzen da. Eguzkitua eta berritua. 637225620.
- 95metro etxebizitza salgai Kaxkoan. Erreforma behar du baina aldaketak egiteko aukera asko. 141.000 euro. 943 36 98 35 (21:00etatik aurrera).
- 230 metro karratuko etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro karratuko lursailan. Kalezarreko eremu urbanoan. 665720913.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Ford Focus bat salgai, 2000. urtekoa. 126.000 km. Egoera onean. 617 772 036.
- Peugeot Partner salgai. Egoera onean, ohe eta guzti. Gazteentzat egokia. 667 830 484.
- Lehenengo jaunartzeko soineko bat daukat salgai.

669645585 edo 943365191.

- 5800 metro karratuko lur eremua salgai Usurbilen, 150 sagarrondorekin. Deitu: 943 361 463
- Nissan Almera salgai. Matrikula: SS-BG. Prezioa: 1.500, IAT (ITV) pasea du. 615 798 479.
- Garaje lerroa salgai Munalurran. 678 225 241.
- 50cc-ko motorra salgai. 2 urte, oso kilometro gutxi. Beti garajejan, ondo zaindua. 622369646.
- Atxegalden Arisitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Ostiral eta larunbatetarako zerbitzaria behar da Xarma tabernarako. Interesdunak bertara agertu daitezke, edo 943 368 771 telefono zenbakira deitu.
- Iratxo tabernan pizza banatzaile baten bila gabilta. Banaketa afaritarako garaian egingo da. Beharrezkoa motorra edo kotxea izatea. 943369135
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska baten bila gabilta. Nahiago dugu Usurbilgoa eta euskalduna izatea. Interesatuak deitu 676355635 telefonora.
- LH-n edota DBH-n klase partikularrak emateko prest egongo al zinateke? Hala bada, pasa zaitez Udarregi Ikastolako idazkaritzatik izena ematera.

Lan-eskaintzak

- Neska esperientziaduna eta ikasketa titulatuak egina pertsona helduak edo ezinduak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko eta ostalaritza lanetan aritzeko eskaintzen da. 666773813
- Orduka umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko eskaintzen da neska bat . 663294970
- Aleman eta Ingeles natiboak, klaseak ematen ditut Usurbilen. Interesatuak deitu 622 856 181.
- Etxeko lanak egiten edo haurrak zein pertsona helduak zaintzen edo dendarri lanetan arituko nintzateke goizez. 620 093 697.
- LHko irakaslea udan klase partikularrak emateko prest. 658 706 443.
- Garbiketa lanetan edo dendarri moduan lanean aritzeko neska bat eskaintzen da. 626618097.
- Herriko emakume euskaldun bat eskaintzen da pertsona helduak eta gaixoak zaintzeko. Ordu-tegi malgua (egunez zein gauetz) eta prezio ekonomikoak. 687348223.
- Emakume esperientziaduna eta erreferentziarik eskaintzen da gauetan adineko pertsonak zaintzeko. 618410123
- Emakume bat eskaintzen da interna moduan adineko pertsona zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. 635267221
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko edo adineko pertsonak zein haurrak zaintzeko. Orduka edo interna moduan aritzeko. 633709347.
- Lehen Hezkuntzako diplomatuak klase partikularrak ematen ditu ikasgai guztietan, Usurbilgo lokalean. 688 681 557 edo imakulada@gmail.com
- Neska bat eskaintzen da orduka zein interna moduan lanean aritzeko Usurbil eta inguruetan etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko. 696537247
- Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 603794547.
- Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 635217362.
- Mutil gazte bat eskaintzen da baserri edo baratzeko lanak egiteko, mendia garbitzeko edo igeltsaritza lanetan aritzeko, 677593772.
- Etxeko lanak egiteko prest nago, baita jende nagusia edo gaztetxoak orduka zaintzeko ere. 606 800 837.

- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo ostalaritza lanetarako. Esperientziaduna. 658107757
- Emakume batek interna moduan pertsona helduak zein haurrak zaintzeko lana bilatzen du. 660554968
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 676188411.
- Jardineritza lanak egiten ditut, txukun eta modu onean. Iñaki: 677 44 31 40.
- Saltzaile, zerbitzari, pertsona helduak zein haurrak zaintzen edo garbiketa lanak egingo nituzke. 656446835.
- Mekanikari gisa, baserrian, edota helduak zaintzeko prest nago. 648 785 026.
- Emakume interna edo goiz zein arratsaldez orduka lan egiteko prest. 648 785 026.
- Mendian edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
- Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608 835 033.
- Etxeko lanak egiteko neska bat prest. 630 768 325.
- Pintore/burdirinlari gisa lan egiteko prest. 654 217 752.
- Fisika eta matematikako klase partikularrak emateko prest, neska gazte esperientziaduna. LH-tik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- GPS Tomtom berria salgai. 600 244 126.
- Ume kapota bat jaso zuen Udaltzaingoko Zubiaurrena 2an (Otar Goxo parean). Galdu duenak Udaltxean jaso dezake.
- Akordeioa saltzen dut. Gutxi erabilia. 943 370 344.
- Katakume bat hartuko nuke gustora baserriarako. 666539284
- Masajeak ematen diut: reflexologia, siatsu, masaje orokorra... 943 365 079 deitu eta utzi zure mezua.
- Bi haur dituen familia gara eta Asturias edo Cantabriaren kanpin batean dagoen mobilhome edo karabana alokatuko genuke abuzturako. 675 007 048 (Garbiñe).
- Usurbil eta inguruetan, belardiak behar dira, belarra jasotzeko. Tel: 607457004. Dani
- Umea kotxean eramateko ziurtasun aukia (10 kilotik gorakoa eta etzaten dena) erosiko nuke. Tlf: 658721427
- Kamera digital bat desagertu zitzaigun liburategian, martxoaren 11n. Asko eskertuko da bueltatzea. 686 554 145 (Ana).
- Sukaldari bat eskaintzen da famili nahiz lagun arteko bazkariak antolatzeko eta prestatzeko etxeetan, elkarte gastronomikoetan..... 670 410 273.
- Lehenengo jaunartzeko soineko bat daukat salgai. Interesatuta bazaude: 669645585 / 943365191.
- 11 husky siberiar txuri oparitzeko. 649906678.
- Andatza mendian (Puelako bidean) mendiko txamarraren mutilarena, urdin iluna, galdu dut. 657702038.
- Hemengo intxaurrak salgai. 943 67 11 60.
- Wii kontsolaren softwarea aldatzen da segurtasunaren kopiai kargatu ahal izateko, DVDaren edo USBaren bidez txipik instalatzeko beharrik gabe. 635729637
- Aiako babarruna salgai, prezio onean. 670410273.
- Zaldi bat jartzeko lur sail bat edo ikuilu bat alokatuko nuke Usurbil edo inguruan: 616260451
- Informatikaria naiz. Ordenagailuen edo informatikari buruz edozein zerbitzu behar izanez gero. Oskar: 609 468 759 oskarsm@hotmail.com
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Iñaki).
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113



Zorionak Anje!!

Ekainaren 24ean , 4 urte egingo dituzu. Muxu pilo bat, Unax, Oihan, June eta Aratzen partez.


Oharrak, zorion agurrak, jaio edo hildakoen berri emateko azken eguna: astearte, eguerdiko 12:00etan.
E-posta: erredakzioa@noaua.com
*Jaiotzen datuak Usurbilgo Bake Epaitegian bakarrik hartzen ditugu



ALKARTASUNA

Usurbilgo Baseritarren Kooperatiba

**LEKUZ ALDATU GARA!!!
ZATOZ EZAGUTZERA ETA JASO ZURE OPARIA!!!**



**BETIKOEZ GAIN
ZERBITZU BERRIAK
ETA GASOLINDEGIA**

**Atallu industrialdea, 6-26
USURBIL**

**943 36 11 14
alkartasuna@usurbil.com**

UDARREGI



IKASTOLA



On do paba sant xabekak!!!



943 361 216

Udarregi Ikastola

Gernika ibilbidea, USURBIL

www.udarregi.com

www.udarregi.mundua.com